

Arte Ederretako ikasle batek diseinatu du Bilbao Orkestra Sinfonikoaren 2026/2027 denboraldiko irudia

Ane Araujoren kartelak —EHUko ikasleek egindako proposamenen artean hautatua izan denak—, bisualki interpretatzen du BOSen hurrengo denboraldiaren inspirazio den Basoaren kontzeptua

Bilbon, 2026ko martxoaren 16an.

Bilbao Orkestra Sinfonikoak (BOS) eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Arte Ederren Fakultateak orkestraren 2026/2027 denboraldiko irudi grafiko berria aurkeztu dute gaur, **Basoaren** kontzeptuan inspiratuta dagoena. Bi erakundeek arteko lankidetzaren emaitza dugu proiektua, eta Sorkuntza eta Diseinuko Gradua ikasten ari diren ikasleek garatu dute, Diseinu Grafikoaren ikasgaiaren baitan.

Ekimen honen esparruan, ikasleek BOSen hurrengo denboraldiaren kontzeptu artistikoa interpretatzeko proposamen bisualak sortu dituzte, eta musikaren, naturaren eta sorkuntzaren arteko loturak aztertu dituzte. Aurkeztutako proposamenen artean, epaimahaiak **Ane Araujoren** kartela hautatu du, denboraldiaren irudi ofiziala izan dadin.

Irabazle suertatu den proposamenak musika-tresna baten itxura duen baso bat irudikatzen du: irudi beltz batek hari batzuk jotzen ditu, zeinak, pixkanaka, zuhaitz bihurtzen diren; hala, musika jotzearen eta basoa ferekatzearen keinua dakarkigu gogora, eta naturak eta soinuak bat egiten duteneko metafora bisuala sortzen da.

Kartelaren egileak, **Ane Araujok**, honelaxe azaldu du bere ibilbidea eta sortze-motibazioa:

“Ane Araujo naiz, 22 urte ditut eta Eibarren bizi naiz. Iaz Arteari buruzko gradua amaitu nuen eta gaur egun Sorkuntza eta Diseinua ikasten ari naiz. Oso gustuko dut sormena eta diseinua lantzea, eta esparru horretan ikasten jarraitu nahiko nuke”.

Arte Ederren Fakultatean irakasten den Diseinu Grafikoko ikasgaiaren baitan garatu dute proiektua, non ikasleek kartela landu duten, hain zuzen ere orkestrarekin, musikarekin eta denboraldia egituratuko duen gaiarekin lotutako kontzeptuak transmititzeko gai den komunikazio-formatu gisa.

EHUko Arte Ederren Fakultateko dekanordeak, **Andere Larrinaga Cuadrak**, nabarmendu du lankidetzaren honek hezkuntza-balio handia duela:

“Asko eskertzen diogu BOSi, batetik, gure hezkuntza-programarekiko agertu duen konfiantza eta, bestetik, datorren denboraldiko irudia areto txiki honetan aurkeztu nahi izana. Eskerrik asko, zinez, gure irakaskuntza garatzeko aukera eman digun benetako proiektu hau proposatzeagatik eta Arte Ederren Fakultatean egiten dugun profesionalizazio-lana erakusteko aukera aparta emateagatik. EHUren ustez, oso garrantzitsua da unibertsitatearen lana euskal herritarren aurrean ikusgai jartzea, diru publikoa baitugu euskarri; horregatik, asko eskertzen dugu gure irakaspen- eta ikerketa-lanak ezagutarazteko ematen diguten aukera oro. Mila esker”.

Horrez gain, dekanordeak azpimarratu du proiektuak irakaskuntza-ikuspegia daukala:

“Gaurkoan aurkezten ari garen proiektua Sorkuntza eta Diseinuko Graduaren hirugarren mailako Diseinu Grafikoko ikasleek garatu dute, euskarazko zein gaztelaniazko taldeetakoek. Proiektuetan oinarritutako ikasketa-metodologia abiapuntu izan dugu irakaskuntza eta ikaskuntza uztartzen dituen ekintza honetan, non ikasleek, benetako proiektu bati esker, ikasgaiaren landutako gaitasunak garatu dituzten irakasleen laguntzarekin. Benetako erronka hori BOSek proposatu zion Fakultateari, eta haren emaitzak erakusketa honetan jarri dira ikusgai”.

Bestalde, Bilbao Orkestra Sinfonikoaren zuzendari nagusiak, **Iñigo Alberdi Amasorrainek**, bi erakundeen arteko ekimenak duen garrantzia nabarmendu du:

“BOSen ustez oso pozgarria da gazteen talentuarekin lankidetzan aritzea eta gure denboraldiaren ateak irekitzea unibertsitateko ikasleen begirada sortzaileari. Ane Araujoren proposamenak elkarriketa iradokitzailea zabaltzen du musikaren eta naturaren artean, eta modu oso poetikoan irudikatzen du gure hurrengo denboraldia egituratuko duen Basoaren kontzeptua”.

Horrez gain, Alberdik azpimarratu du orkestrak zeregin garrantzitsua duela lurraldeko kultura-sarean:

“Mende bat baino gehiago igaro da Bilbao Orkestra Sinfonikoa Bilboko eta Bizkaiko taupada kultural eta sozialean parte hartzen hasi zenetik. Musika sinfonikoa herritarrengana hurbiltzen jarraitzeko konpromisoa daukagu, baita gure inguruko kultura- eta hezkuntza-erakundeekin lankidetzan aritzeko eta Euskadiko bizimodu kulturalari modu aktiboan laguntzeko ere”.



Kartela aurkeztearekin batera erakusketa bat inauguratu da Arte Ederren Fakultatean, non ikasleek proiektu honen baitan egindako lan-sorta ikusgai jarri duten. Lagin hori dugu, hain zuzen, ikasleek sormen-prozesuan garatutako ikuspegi eta irtenbide grafikoen aniztasunaren isla.

Komunikabideentzako harremanetarako pertsona

Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS)
Itziar López de Armentia
Tel.: 677 44 02 21

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)
Josu Bidaguren
Tel.: 946 01 80 93